

EZ BEGIRATU ARMAIRUAN

Marc Egea

Eusk: Ele txera

CARLOS etxera itzuli da bidaia baten ondoren. Dirudienez, maitale batekin harrapatu du emaztea. Emakumeak, ordea, aurre egiten dio senarrari, triste eta desafiatzaile artean.

ANA: Ez begiratu gelako armairuan, Carlos. (*Astiro hitz egiten du, hitzak ondo aukeratuz*) Alde egin. Atera buelta bat ematera. Sartu berriro ate horretatik ordu erdi barru, eta egin hau gertatu izan ez balitz bezala, ohetik ateratzen ez banengo bezala, arratsaldeko seietan, biluzik, arnasketa aztoratuarekin... Soilik eta, esan huen itzuli beharreko hegaldian ez haizelako bueltatu

Bien bitartean, jantziko nauk, ohea egingo diat, sukaldera jaitsiko nauk eta afaria prestatzen hasiko nauk, lasai, ezer gertatu ez balitz bezala: asteartean lanera deitu izan ez banu bezala, zenbat maite haudan esateko, eta horrela ezin izan banu jakin lagin-feria 'nekagarri eta lizun' hori bi pertsonarentzako bidaia zuala Parisera...

Nik ez diat esango metroan kontuz ibili behar duanik litxarrerok beteta zagoalako, Louvre ikusteko egun bat ez duala nahikoa, Eiffel dorrera igotzeko ilara egitea merezi diala, Parisko onena gauzez Senan nabigatzea duala. Hi... Hi, Carlos... Ez begiratu gelako armairuan. Hori duk... zabaldu atea eta atera. Zer nahi duk afaltzeko?

OHARRA: Armairuan inor ez egotearen premisarekin ere planteatu daiteke.

Ele txera
munduarek zabalduz

